| | |
|---|---|
| **AGINDUA, MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ AURRETIK ONARTZEN BAITA MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN SAILAREN EGITURA ORGANIKOA ETA FUNTZIONALA EZARTZEN DUEN DEKRETUA ALDATZEKO DEKRETU PROIEKTUA.** | **ORDEN DE LA CONSEJERA DE MOVILIDAD SOSTENIBLE, POR LA QUE SE APRUEBA CON CARÁCTER PREVIO EL PROYECTO DE DECRETO DE MODIFICACIÓN DEL DECRETO DE ESTRUCTURA ORGÁNICA Y FUNCIONAL DEL DEPARTAMENTO DE MOVILIDAD SOSTENIBLE.** |
| 2026eko uztailaren 28ko Aginduaren bidez, Mugikortasun Jasangarriaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen dekretua aldatzeko dekretu-proiektua egin eta onartzeko prozedurari hasiera emateko agindu zuen Mugikortasun Jasangarriaren sailburuak. | Mediante Orden de 28 de julio de 2026, la consejera de Movilidad Sostenible ordenó el inicio del procedimiento para la elaboración y aprobación de un proyecto de Decreto de modificación del Decreto de estructura orgánica y funcional del Departamento de Movilidad Sostenible. |
| Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15.1 artikuluak honela dio: “Xedapen orokorren proiektuak idatzitakoan, prozedura hasteko agindua eman duen organoak aldez aurreko onarpena eman beharko dio dena delako testu artikulatuari, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta izapideak egin aurretik”. | El artículo 15.1 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de Disposiciones de Carácter General, señala que “una vez redactados todos los proyectos de disposición de carácter general, antes de evacuar los trámites de negociación, audiencia y consulta que procedan, el texto articulado correspondiente deberá contar con la aprobación previa acordada por el órgano que haya dictado la orden de inicio”. |
| Aipatutakoa kontuan hartuta, eta prozedura hasteko aginduan ezarritako helburuaren arabera, dekretu proiektuaren testua idatzi ondoren, aldez aurreko onarpena eman behar zaio, dagozkion izapideak egin aurretik, eta, beraz, hauxe | En virtud de lo señalado, una vez redactado el texto del proyecto de decreto, de acuerdo con la finalidad establecida en la Orden de inicio del procedimiento, procede su aprobación previa con anterioridad a los trámites pertinentes, por todo lo cual |
| **EBAZTEN DUT** | **RESUELVO** |
| **Lehenengoa.-** Aldez aurreko onarpena ematea Mugikortasun Jasangarriaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen dekretua aldatzeko dekretu-proiektuaren testuari. | **Primero.-** Aprobar con carácter previo el texto del proyecto de decreto de modificación del Decreto por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Movilidad Sostenible. |
| **Bigarrena.-** Araua egiteko prozeduraren jarraipena xedatzea, eta beharrezkoak diren instrukzio-egintzak egin daitezela agintzea, bat etorriz Prozedura hasteko | **Segundo.-** Disponer la continuación del procedimiento de elaboración de la norma, ordenando la realización de los actos de instrucción necesarios, todo ello |



Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la **sede electrónica** mediante el **localizador** indicado al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizko dokumentu elektronikoaren irudikapen bat da, **egoitza elektronikoan** egiaztagarria, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** bidez.

**LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR:** J0D0Z-T8GWG-7YN4
**EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA:** https://euskadi.eus/lokalizatzailea / https://euskadi.eus/localizador
**SINATZAILE / FIRMANTE:** SUSANA GARCIA CHUECA | 2026/08/13 19:56:24

| | |
|---|---|
| 2026eko uztailaren 28ko Aginduan eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legean xedatutakoarekin. | de conformidad con las premisas expresadas en la Orden de inicio de 28 de julio de 2026, y en la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General. |

Vitoria-Gasteizen / En Vitoria-Gasteiz

Mugikortasun Jasangarriaren sailburua

La consejera de Movilidad Sostenible

SUSANA GARCÍA CHUECA

Elektronikoki sinatua/ Firmado electrónicamente

**xxx/2026 DEKRETUA, xxxren xx(e)koa, zeinaren bitartez aldatzen baita Mugikortasun Jasangarriaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen Dekretua.**

**DECRETO xxx/2026, de xx de xxxx, de modificación del Decreto por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Movilidad Sostenible.**

Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena) azken xedapenetako lehenengoan ezarritakoa betez, 2024ko azaroaren 29an sartu zen indarrean Mugikortasun Jasangarriaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 382/2024 Dekretua. 2024ko abenduaren 5eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 237. zenbakian, argitaratu zen Dekretu horren hutsen zuzenketa.

En cumplimiento de lo establecido en la disposición final primera del Decreto 18/2024, de 23 de junio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, el 29 de noviembre de 2024 entró en vigor el Decreto 382/2024, de 19 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Movilidad Sostenible, cuya corrección de errores fue publicada en el Boletín Oficial del País Vasco, nº 237, de 5 de diciembre de 2024.

Aurretik, 2024ko apirilaren 24an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Estatuko Aldizkari Ofizialean, apirilaren 9ko 368/2024 Errege Dekretua, Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoaren erabakia onartzen duena. Horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen zaizkio bidaiariak aldiriko trenbidez garraiatzeko zerbitzuei dagozkien Estatuko Administrazioaren eginkizunak.

Anteriormente, el 19 de abril de 2024, se publicó tanto en el Boletín Oficial del País Vasco como en el Boletín Oficial del Estado, el Real Decreto 368/2024, de 9 de abril, por el que se aprueba el Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias Estado-Comunidad Autónoma del País Vasco de traspaso a la Comunidad Autónoma del País Vasco de las funciones de la Administración del Estado correspondientes a los servicios de transporte de viajeros por ferrocarril de cercanías.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari bidaiariak aldiriko trenbidez garraiatzeko zerbitzuak transferitzearen ondorioz hartutako betebeharrak betetzeko, 2024ko azaroaren 28an sinatu zuten – Mugikortasun Jasangarriaren Sailaren

A fin de dar cumplimiento a las obligaciones contraídas con motivo de la transferencia a la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco de los servicios de transporte de viajeros por ferrocarril de cercanías, se firmó, el 28 de noviembre de 2024, en

egitura organikoari buruzko Dekretua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen egun berean– Estatuko Administrazio Orokorrak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Renfe Viajeros SA Estatuko Merkataritza Sozietateak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra zerbitzu horiek emateko kontratuan Estatuko Administrazio Orokorrak duen kontratu-posizioan subrogatzeko akordioa. Subrogazio-akordio hori 2025eko urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean.

fecha coincidente con la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco del Decreto de estructura orgánica del Departamento de Movilidad Sostenible, el acuerdo entre la Administración General del Estado, la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y la Sociedad Mercantil Estatal Renfe Viajeros, SME, S.A. para la subrogación de la Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi en la posición contractual de la Administración General del Estado en el contrato para la prestación de dichos servicios. La entrada en vigor del referido acuerdo de subrogación se produjo el 1 de enero de 2025.

Transferitutako zerbitzuen gaineko eskumena Mugikortasun Jasangarriaren Sailari atxiki zitzaion.

Hauek osatzen zuten, jatorrian, transferitutako zerbitzua:

Zabalera iberikoko Bilboko aldirietako nukleoak:

- C-1 (Bilbao Abando – Barakaldo - Santurtzi)
- C-2 (Bilbao Abando – Barakaldo - Muskiz)
- C-3 (Bilbao Abando - Orduña)

Zabalera iberikoko Donostiako aldirietako nukleoak:

- C-1 Irun – Donostia – Tolosa - Brinkola.

Zabalera metrikoko Bilboko aldirietako nukleoak:

- C-4f Bilbao – Balmaseda.

Ondoren, 2025eko maiatzaren 30ean, Arabako Lautadako aldiriko trenen

La competencia sobre los servicios transferidos quedó adscrita al Departamento de Movilidad Sostenible.

El servicio transferido lo componían originalmente:

El núcleo de cercanías de ancho ibérico de Bilbao:

- C-1 (Bilbao Abando – Barakaldo - Santurtzi)
- C-2 (Bilbao Abando – Barakaldo - Muskiz)
- C-3 (Bilbao Abando - Orduña)

El núcleo de cercanías de ancho ibérico de Donostia – San Sebastián:

- C-1 Irún – San Sebastián – Tolosa- Brinkola.

El núcleo de cercanías de ancho métrico de Bilbao:

- C-4f Bilbao – Balmaseda.

Posteriormente, con fecha 30 de mayo de 2025, se implantó una mejora del servicio

zerbitzua hobetu zen; astean 137 zirkulazio Altsasu (Nafarroa) eta Miranda de Ebro (Burgos) artean, eta geldialdiak Araian, Agurainen, Alegria-Dulantzin, Gasteizen, Langraiz Okan, Argantzonen eta Manzanosen.

ferroviario de cercanía de la Llanada Alavesa; 137 circulaciones semanales entre Altsasua, en Navarra, y Miranda de Ebro, en Burgos, con paradas en Araia, Agurain, Alegría-Dulantzi, Vitoria-Gasteiz, Nanclares de la Oca, La Puebla de Arganzón y Manzanos.

Duela gutxi, 2026ko maiatzaren 6an, aldiriko trenen C5 linea berria jarri zen martxan Karrantza eta Aranguren (Zalla) geltokien artean, Enkarterrin (Bizkaia).

Más recientemente, el 6 de mayo de 2026, se puso en servicio la nueva línea ferroviaria C5 de Cercanías entre las estaciones de Karrantza y Aranguren (Zalla), en Enkarterri (Bizkaia).

Bestalde, Euskadiko etorkizuneko trenbide-sareari esker, hirigune nagusiak lotuko dituen Intercity zerbitzu bat antolatu ahal izango da, trenbide-merkatu liberalizatu batekin bateragarria izango den diseinu batekin. Zerbitzu hori ezartzeko, garraio publikoko zerbitzuen eta ordutegien koordinazio-, azterketa- eta elkarreragingarritasun-lan garrantzitsuak egin beharko dira.

Por otra parte, la futura red ferroviaria de Euskadi permitirá articular un servicio Intercity que conectará los principales núcleos urbanos, con un diseño compatible con un mercado ferroviario liberalizado, cuya implantación conllevará labores de coordinación, análisis e interoperabilidad de horarios y servicios de transporte público de envergadura.

Europako trenbide-merkatu liberalizatu baten testuinguruan jarriko da martxan, zerbitzu publikoko kontratuen lehia eta lizitazioa sustatzen duen testuinguruan, zuzeneko esleipena ahalbidetzen duten salbuespen jakin batzuk mantentzen dituen arren.

Su puesta en marcha se desarrollará en un contexto de liberalización del mercado ferroviario europeo, que fomenta la competencia y la licitación de los contratos de servicio público, aunque mantiene determinadas excepciones que permiten la adjudicación directa.

Gauzak horrela, beharrezkoa da aurretik definitzea etorkizuneko zerbitzuen kudeaketa-eta kontratazio-eredua, alderdi hauek aztertuta: esleipen-prozedura, kontratuen izaera juridikoa eta Euskadin trenbide-zerbitzuak emateko eginkizuna Administrazioaren baliabide propioek bete ahal izango duten, bereziki Eusko Trenbideak SAk(ET).

En este escenario, resulta necesario definir con antelación el modelo de gestión y contratación de los futuros servicios, analizando aspectos como el procedimiento de adjudicación, la naturaleza jurídica de los contratos y el papel que podrán desempeñar medios propios de la Administración en la prestación de los servicios ferroviarios en Euskadi, especialmente «Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos, S.A.»

(ET-FFVV).

Horrez gain, 2026ko martxoaren 27an, Estatuko Administrazioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Aldebiko Lankidetza Batzordeak Euskadi-Estatua Aireportuko Aldebiko Organoa sortzeko erabakia hartu zuen. Organo horrek bere gain hartu zituen hainbat arlotako eginkizunak: aireportuen plangintza eta lankidetza, zerbitzuaren konektagarritasuna eta kalitatea, ingurumen-politikak, eta aireportuetan eragina duten gainerako politika publikoak.

Adicionalmente, el 27 de marzo de 2026, la Comisión bilateral de Cooperación Administración del Estado- Comunidad Autónoma del País Vasco, adoptó el acuerdo relativo a la creación del Órgano Bilateral Aeroportuario Euskadi-Estado, órgano que asume funciones en materia de planificación y cooperación aeroportuaria, en materia de conectividad y calidad del servicio, en el ámbito de políticas ambientales, así como en el ámbito del resto de políticas públicas con impacto aeroportuario.

Horregatik guztiagatik, eta Mugikortasun Jasangarriaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 382/2024 Dekretua indarrean jarri ondoren hartutako erantzukizunen garrantzia kontuan hartuta, eta eraginkortasunari begira, egokitzat jotzen da Mugikortasun Jasangarrirako Estrategiaren egungo Zuzendaritza bitan banatzea: Mugikortasun Jasangarrirako Estrategiaren Zuzendaritza eta Garraio Sistemak Kudeatzeko Zuzendaritza.

Por todo ello, y, en atención a la envergadura de las responsabilidades adquiridas tras la entrada en vigor del Decreto 382/2024, de 19 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Movilidad Sostenible y por razones de operatividad, se considera conveniente dividir la actual Dirección de Estrategia para la Movilidad Sostenible en dos direcciones: Dirección de Estrategia para la Movilidad Sostenible y Dirección de Gestión de Sistemas de Transporte.

Horrela, aldatu egin behar da azaroaren 19ko 382/2024 Dekretua, Mugikortasun Jasangarriaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena, gaur egun Mugikortasun Jasangarrirako Estrategiaren Zuzendaritzak esleituta dituen eginkizunak Zuzendaritza horren eta Garraio Sistemen Kudeaketa Zuzendaritza berriaren artean banatzeko eta azken horrek izango dituen eginkizun berriak definitzeko.

Ello determina la necesidad de modificar el Decreto 382/2024, de 19 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Movilidad Sostenible, a fin de redistribuir las funciones actualmente asignadas a la Dirección de Estrategia para la Movilidad Sostenible entre la misma y la nueva Dirección de Gestión de Sistemas de Transporte, y de definir las nuevas funciones encuadradas en esta última.

Ondorioz, Mugikortasun Jasangarriaren sailburuak proposatuta, lehendakariak onartu ondoren, eta Gobernu Kontseiluak 2026ko ......aren ..(e)an egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, hauxe

**XEDATZEN DUT:**

**Lehenengo artikulua.** – *Mugikortasun Jasangarriaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 382/2024 Dekretuaren 2. artikuluaren (Egitura orokorra) 2. apartatua aldatzea.*

Aldatu egiten da Mugikortasun Jasangarriaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 382/2024 Dekretuaren 2. artikuluaren 2. apartatuan jasotako egungo organo zentraletako baten osaera. Honela geratzen da idatzita:

«2.- *Mugikortasun Jasangarriaren sailburuaren mende daude, organo gorena den aldetik, organo zentral hauek:*

a) Azpiegituren eta Mugikortasun Jasangarriaren Sailburuordetza.

   1. Mugikortasun Jasangarrirako Estrategiaren Zuzendaritza.
   2. Garraio Azpiegituren Zuzendaritza.
   3. Garraio Sistemak Kudeatzeko Zuzendaritza.

b) Zerbitzu Zuzendaritza.

c) Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritza».

En su virtud, a propuesta de la consejera de Movilidad Sostenible, previa aprobación del Lehendakari, y deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día … de … de 2026,

**DISPONGO:**

**Artículo primero –** *Modificación del apartado 2 del artículo 2 (Estructura general) del Decreto 382/2024, de 19 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Movilidad Sostenible.*

Se modifica la composición de uno de los actuales órganos centrales incluidos en el apartado 2 del artículo 2 del Decreto 382/2024, de 19 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Movilidad Sostenible, quedando el mismo redactado de la siguiente manera:

*«2.- Dependen del consejero o consejera de Movilidad Sostenible, como órgano superior, los siguientes órganos centrales:*

*a) La Viceconsejería de Infraestructuras y Movilidad Sostenible.*

   *1. Dirección de Estrategia para la Movilidad Sostenible.*
   *2. Dirección de Infraestructuras del Transporte.*
   *3. Dirección de Gestión de Sistemas de Transporte.*

*b) Dirección de Servicios.*

*c) Dirección de Gabinete y Comunicación».*

**Bigarren artikulua.** – *Mugikortasun Jasangarriaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 382/2024 Dekretuaren 9. artikuluaren (Azpiegituren eta Mugikortasun Jasangarriaren Sailburuordetza) 4. apartatua aldatzea.*

Berriz idatziko da Mugikortasun Jasangarriaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 382/2024 Dekretuaren 9. artikuluaren (Azpiegituren eta Mugikortasun Jasangarriaren Sailburuordetza) 4. apartatua. Honela geratzen da idatzita:

*«4. Azpiegituren eta Mugikortasun Jasangarriaren Sailburuordetzaren mende daude, zuzenean eta hierarkikoki, Mugikortasun Jasangarrirako Estrategiaren Zuzendaritza, Garraio Azpiegituren Zuzendaritza eta Garraio Sistemak Kudeatzeko Zuzendaritza».*

**Hirugarren artikulua.** – *Aldatu egiten da Mugikortasun Jasangarriaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 382/2024 Dekretuaren 10. artikulua (Mugikortasun Jasangarrirako Estrategiaren Zuzendaritza).*

1.- Ezabatu egiten da Mugikortasun Jasangarriaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 382/2024 Dekretuaren 10. artikuluaren (Mugikortasun Jasangarrirako Estrategiaren Zuzendaritza) 1. apartatuaren c) letra.

**Artículo segundo.** – *Modificación del apartado 4 del artículo 9 (La Viceconsejería de Infraestructuras y Movilidad Sostenible) del Decreto 382/2024, de 19 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Movilidad Sostenible.*

Se da una nueva redacción al apartado 4 del artículo 9 (La Viceconsejería de Infraestructuras y Movilidad Sostenible) del Decreto 382/2024, de 19 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Movilidad Sostenible, que queda redactado como sigue:

*«4. De la Viceconsejería de Infraestructuras y Movilidad Sostenible dependen directa y jerárquicamente la Dirección de Estrategia para la Movilidad Sostenible, la Dirección de Infraestructuras del Transporte y la Dirección de Gestión de Sistemas de Transporte».*

**Artículo tercero.** - *Modificación del artículo 10 (Dirección de Estrategia para la Movilidad Sostenible) del Decreto 382/2024, de 19 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Movilidad Sostenible.*

1.- Se elimina el subapartado c) del apartado 1 del artículo 10 (Dirección de Estrategia para la Movilidad Sostenible) del Decreto 382/2024, de 19 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Movilidad Sostenible.

2.- Ezabatu egiten dira Mugikortasun Jasangarriaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 382/2024 Dekretuaren 10. artikuluaren (Mugikortasun Jasangarrirako Estrategiaren Zuzendaritza) 2. apartatuko c), d), k) eta l) letrak.

2.- Se eliminan los subapartados c), d), k) y l) del apartado 2 del artículo 10 (Dirección de Estrategia para la Movilidad Sostenible) del Decreto 382/2024, de 19 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Movilidad Sostenible.

3.- Ezabatu egiten da Mugikortasun Jasangarriaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 382/2024 Dekretuaren 10. artikuluaren (Mugikortasun Jasangarrirako Estrategiaren Zuzendaritza) 4. apartatua.

3.- Se elimina el apartado 4 del artículo 10 (Dirección de Estrategia para la Movilidad Sostenible) del Decreto 382/2024, de 19 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Movilidad Sostenible.

**Laugarren artikulua. –** *12. artikulua gehitzen zaio Mugikortasun Jasangarriaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 382/2024 Dekretuari.*

**Artículo cuarto.** - *Se añade un nuevo artículo 12 al Decreto 382/2024, de 19 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Movilidad Sostenible.*

12. artikulua gehitzen zaio Mugikortasun Jasangarriaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 382/2024 Dekretuari. Honela geratzen da idatzita:

Se añade un nuevo artículo 12 al Decreto 382/2024, de 19 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Movilidad Sostenible, quedando redactado el mismo de la siguiente manera:

«*12. artikulua. Garraio Sistemak Kudeatzeko Zuzendaritza.*

1. *Garraio Sistemak Kudeatzeko Zuzendaritzak sailburuordetzaren jardun-arlo hauetan garatzen ditu bere egitekoak:*
   a) *Bide-sarea.*
   b) *Trenbideko, lurreko, itsasoko, ibaietako eta kable bidezko garraioak.*
   c) *Aireportuak eta heliportuak.*

«*Artículo 12. Dirección de Gestión de Sistemas de Transporte.*

1. *La Dirección de Gestión de Sistemas de Transporte desarrolla sus funciones en las siguientes áreas de actuación de la Viceconsejería:*
   a) *Red Viaria.*
   b) *Transportes ferroviarios, terrestres, marítimos, fluviales y por cable.*
   c) *Aeropuertos y helipuertos.*

*2.- Arlo horietan, honako egiteko hauek dagozkio Garraio Sistemak Kudeatzeko Zuzendaritzari, dekretu honen 6. artikuluan oro har esleitzen zaizkion egitekoez gain:*

*2.- En estas áreas, corresponde a la Dirección de Gestión de Sistemas de Transporte, además de las que con carácter general le atribuye el artículo 6 del presente Decreto, el ejercicio de las siguientes funciones:*

*Aireko eta kable bidezko garraio-azpiegituren arloan jarduketak egiteko beharrezkoak diren hirigintza-antolamenduko planak eta tresnak prestatzeko eta aldatzeko proposamenak egitea.*

*Proponer la elaboración y modificación de los planes e instrumentos de ordenación urbanística precisos para las actuaciones en materia de infraestructura del transporte aéreo y por cable.*

*Bidaiarien eta salgaien garraioa eta garraio horren jarduera lagungarri eta osagarriak planifikatu eta antolatzea.*

*Planificar y ordenar el transporte de personas viajeras y de mercancías y las actividades auxiliares y complementarias del mismo.*

*Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak dituen aire-garraioko eskumenak baliatzea, baldin eta eskumen horiek zerikusirik ez badute arlo horietan azpiegiturak egin, zuzendu, ikuskatu eta gauzatzearekin.*

*Ejercer las competencias de la Administración de la Comunidad Autónoma en materia de transporte aéreo no vinculadas con la elaboración, dirección, inspección y ejecución de infraestructura en dichas materias.*

*Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak bidaiariak aldiriko trenbidez garraiatzearen arloan dituen eskumenak baliatzea, apirilaren 9ko 368/2024 Errege Dekretuan ezarritako baldintzetan; errege-dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen zaizkio bidaiariak aldiriko trenbidez garraiatzeko zerbitzuei dagozkien Estatuko Administrazioaren eginkizunak.*

*Ejercer las competencias de la Administración de la Comunidad Autónoma en materia de transporte de viajeros por ferrocarril de cercanías, en los términos establecidos en el Real Decreto 368/2024, de 9 de abril, de traspaso a la Comunidad Autónoma del País Vasco de las funciones de la Administración del Estado correspondientes a los servicios de transporte de viajeros por ferrocarril de cercanías.*

*3.- Garraio Sistemak Kudeatzeko Zuzendaritzak bere gain hartuko du Eusko Trenbideak SA (ET) sozietate publikoaren administrazio-tutoretza, betiere Azpiegituren eta Mugikortasun*

*3.- Bajo la superior dirección y conforme a las instrucciones de la Viceconsejería de Infraestructuras y Movilidad Sostenible, la Dirección de Gestión de Sistemas de Transporte ejercerá la tutela*

*Jasangarriaren Sailburuordetzaren zuzendaritzapean eta haren jarraibideekin bat etorriz».*

**AZKEN XEDAPENA– Bakarra.-** Indarrean sartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

*administrativa de la sociedad pública «Eusko Trenbideak - Ferrocarriles Vascos, S.A.» (ET-FFVV).»*

**DISPOSICIÓN FINAL– Única.-** Entrada en vigor.

El presente decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren egunean
En Vitoria-Gasteiz, a la fecha de su firma electrónica

El lehendakari,
IMANOL PRADALES GIL.

Mugikortasun Jasangarriaren sailburua
La consejera de Movilidad Sostenible
SUSANA GARCÍA CHUECA